PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 03 - ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
Atala: 0301 - Zainketa eta Gizarte Politiketako Zerbitzu Orokorrak
Programa: 010 - Zainketa eta gizarte-politiketako zerbitzu orokorrak
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Departamentuaren egitura

Misioa:

Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren kudeaketa hobetzea da Idazkaritza Teknikoaren eginkizun nagusia, departamentuaren jarduerari berme juridiko eta administratiboa emanez. Batetik, departamentuko diputatuari, zuzendariei eta zerbitzuetako langileei laguntza ematen die espedienteak kudeatzen eta izapidetzen; jarduketak indarreko araudiarekin bat etorriz gauzatzen direla bermatzen du; lege- eta arau-aldaketetara egokitzea sustatzen du; eta departamentuaren aurrekontuaren jarraipena eta kontrola egiten ditu. Bestetik, herritarrentzako informazio- eta arreta-zerbitzua eta departamentuko erregistro orokorra antolatu eta kudeatzen ditu.

Egoeraren diagnostikoa:

Administrazioak, bere izaeragatik, bere jarduera legeek ezarritako prozedurei eta bermeei jarraituz gauzatu behar du. Araudi hori etengabe eguneratzen eta egokitzen da, eta, aldi berean, jardun-eremu berriak arautzeko xedapen berriak onartzen dira. Departamentuko zerbitzuek beren jakintza-esparruei lotutako araudi espezifikoa ezagutzeaz gain, administrazio-araubide orokorraren oinarrizko ezagutza ere badute. Idazkaritza Teknikoari dagokio, ordea, ikuspegi orokorra bermatzea eta departamentuaren jarduera administratiboaren koordinazioa gidatzea, bereziki aurrekontu-, kontratazio-, hitzarmen- eta gainerako administrazio-prozeduren arloan. Era berean, departamentuaren zerbitzu orokorren kudeaketa Idazkaritza Teknikoan zentralizatzen da, besteak beste, erregistroarena, artxiboarena, hornidurena eta proiektu informatikoena.
2027 ekitaldiari begira, garrantzi berezia hartzen du Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2026ko uztailaren 9an hartutako erabakiak. Bilera horretan, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren finantzaketa-eredua berrikusi da, eta Estatuaren konturako finantzaketa osatzeko metodologia berria onartu da, Ekonomia Itunaren ereduarekin bat etorriz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren gastua finkatzeko eta haren jarraipena egiteko, funtsezkoa izango da Idazkaritza Tekniko honen lankidetza.

Beharraren deskribapen xehatua:

Funtsezkotzat jotzen da departamentuaren barruan unitate bat izatea, araudian ezarritako betekizunak sakon ezagutu, departamentu barruko jarduera koordinatu eta zerbitzu komunen hornidura zentralizatuko duena.

Nori zuzendua:

Departamentuko langilegoa eta zuzendaritza politikoa.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Idazkaritza Teknikoko langilegoa eta finantza-baliabideak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Txostenak, memoriak, pleguak, oinarri arautzaileak, hitzarmenak, kontratuak, ebazpenak, ekintzak, aurrekontuen aurreproiektua, izapidetze-lanak...

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Laguntza juridiko-administratiboa, legearen betetzean, aurrekontuen kudeaketan eta kontratazio arloan.

Programaren arau esparrua:

Administrazio-arloko arautegi orokorra.

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Departamentuaren kudeaketa hobetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Idazkaritzako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko egindako gogobetetze-inkesten balorazioen batezbestekoa.	Ehunekoa	>=	9,15	9,00	9,00	9,00
Epe barruan egiten diren ordainketen batezbesteko balioa.	Ehunekoa	>=	98,70	98,00	98,50	87,00
Departamentuan izapidetutako eta epe barruan ebatzitako espedienteen ehunekoa.	Ehunekoa	>=	99,00	100,00	100,00	100,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Aholkularitza juridikoa eta legezkotasun-kontrola



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**546.689,40**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Txostenak eta irizpenak ematea	320.410,70			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Diputatuen Kontseiluaren erabaki, ekintza eta ebazpen proposamenak idaztea	226.278,70			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Administrazio-kontratazioa eta dirulaguntzen kudeaketa



% 92,35



% 7,65

Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**147.011,52**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Departamentuaren kontratuen jarraipena eta kontrola	67.883,61			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Departamentuaren dirulaguntzen jarraipena eta kontrola	67.883,61			2027/01/01	2027/12/31	
2.3 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkunta-klausula berrituak txertatzea	11.244,30			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:
Kontabilitatearen eta aurrekontuaren kudeaketa

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.315.473,25**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Aurrekontuen aurreproiektua idaztea	181.022,96			2027/01/01	2027/10/31	
3.2 Ekintza Aurrekontuen gauzatzearen eta kontabilitatearen jarraipena	226.278,70			2027/01/01	2027/12/31	
3.3 Ekintza Funtzionamendu-gastu orokorrak	908.171,59			2027/01/01	2027/12/31	

4. Ekintza lerroa:
Langilegoa, erregistro orokorra, artxiboa, jakinarazpenak egitea eta fede publikoa

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.131.321,02**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
4.1 Ekintza Eskumena duen						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Departamentuarekin lankidetza langilegoaren arloan	226.278,70			2027/01/01	2027/12/31	
4.2 Ekintza Sarrera- eta irteera-erregistroaren antolakuntza eta kudeaketa	181.022,96			2027/01/01	2027/12/31	
4.3 Ekintza Dokumentuen eta espedienteen artxibo orokorra antolatzea	226.278,70			2027/01/01	2027/12/31	
4.4 Ekintza Jakinarazpenak egitea eta ziurtagiriak ematea	407.507,70			2027/01/01	2027/12/31	
4.5 Ekintza Gizarte Zerbitzuen Erregistroaren sarrera eta erabilera erraztea	90.232,96			2027/01/01	2027/12/31	

5. Ekintza lerroa:
Zerbitzu informatikoak

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**91.152,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
5.1 Ekintza Aplikazio informatiko berriak sortu eta ekipamenduaren erosketa	91.152,00			2027/01/01	2027/12/31	

6. Ekintza lerroa:
Jendeari arreta, informazioa, kexak, iradokizunak eta departamentuaren jarduera plazaratzea

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**355.593,81**	**53.901,00**		**2027/01/01**	**2028/06/30**	
6.1 Ekintza Aurrez aurreko, online eta telefonoaren bidezko arreta	355.593,81	53.901,00		2027/01/01	2028/06/30	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Idazkaritza Teknikoaren jarduera nagusia departamentuari euskarri juridiko, ekonomiko, administratibo eta antolakuntzazkoa ematea denez, unitate honek, zeharka bada ere, departamentuaren barruan bedintasun-ikuspegia txertatzen laguntzen du. Horretarako, indarrean dagoen berdintasun-araudia administrazio-prozeduretan, kontratazioan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta gainerako jarduketa administratiboetan behar bezala aplikatzea sustatzen du. Halaber, kontuan izanik departamentuaren arreta-zerbitzua ere Idazkaritza Teknikoan zentralizatzen dela eta, beraz, zerbitzuen hartzaileekin eta sektoreko profesionalekin harreman zuzena duela, Idazkaritza Teknikoak zeregin garrantzitsua betetzen du emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa departamentuaren jarduera osoan txertatzen dela bermatzeko.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Idazkaritza Teknikoaren jarduera nagusia departamentuari euskarri juridiko, ekonomiko, administratibo eta antolakuntzakoa ematea denez, unitate honek, zeharka bada ere, eragina du departamentuaren barruko kudeaketan eta funtzionamenduan. Bestalde, kanpora begira, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua gizarte-esparruan diharduen eta herritar askorekin harreman zuzena duen departamentua izanik, bereziki garrantzitsua da hizkuntza-berdintasuna haren jarduera osoan zehar-lerro gisa txertatzea. Ildo horretan, aipatu behar da Idazkaritza Teknikoak hizkuntza-teknikari bat barneratu duela lan-taldean, hizkuntza-irizpideak departamentuaren kudeaketan eta jardueretan txertatzeko eta hizkuntza-berdintasunaren ikuspegia jarduera-eremu guztietan modu sistematikoan garatzeko eta sustatzeko. Hizkuntza-klausulak txertatzeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Plan Estrategikoa eta departamentuko Euskararen Kudeaketa Plana lerrokatu eta berau garatuko da. Gainera, Euskarazko Administrazio Atalak sustatu eta berariazko lanketa egingo da bertan.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	**6.- Hizkuntza-klausulak**

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Idazkaritza Teknikoak, departamentuaren jarduera administratiboaren koordinazioa, aurrekontu- eta kontratazio-prozeduren kontrola eta zerbitzu orokorren kudeaketa zentralizatzen dituen heinean, 2030 Agendaren helburuak lortzen laguntzen du. Ildo horretan, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) bat etorriz, aurrekontu-programa honek bereziki 16. GJHari, «Bakea, justizia eta instituzio sendoak», eta, zehazki, 16.6 xedeari egiten dio ekarpena, administrazio publiko eraginkorra, gardena eta kontuak ematen dituena sustatuz.

Kuantifikazioa: 3.641.142,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**3.575.996,70**	**53.901,00**
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	3.575.996,70	53.901,00
	Ekintza lerroak		
	Aholkularitza juridikoa eta legezkotasun-kontrola	546.689,40	
	Administrazio-kontratazioa eta dirulaguntzen kudeaketa	135.767,22	
	Kontabilitatearen eta aurrekontuaren kudeaketa	1.315.473,25	
	Langilegoa, erregistro orokorra, artxiboa, jakinarazpenak egitea eta fede publikoa	1.131.321,02	
	Zerbitzu informatikoak	91.152,00	
	Jendeari arreta, informazioa, kexak, iradokizunak eta departamentuaren jarduera plazaratzea	355.593,81	53.901,00
18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**11.244,30**	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	11.244,30	
	Ekintza lerroak		
	Administrazio-kontratazioa eta dirulaguntzen kudeaketa	11.244,30	
Guztira		**3.587.241,00**	**53.901,00**

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	2.176.773,00	2.248.861,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	959.707,00	1.287.645,00	53.901,00				53.901,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**3.136.480,00**	**3.536.506,00**	**53.901,00**				**53.901,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	50.735,00	50.735,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**50.735,00**	**50.735,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**3.187.215,00**	**3.587.241,00**	**53.901,00**				**53.901,00**

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL		2.248.861,00				2.248.861,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		1.287.645,00		53.901,00		1.341.546,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		**3.536.506,00**		**53.901,00**		**3.590.407,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES		50.735,00				50.735,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		**50.735,00**				**50.735,00**
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		**3.587.241,00**		**53.901,00**		**3.641.142,00**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2026	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	460.000,00	460.000,00	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**460.000,00**	**460.000,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	**460.000,00**	**460.000,00**	